



**2023KO EKAINAREN 29KO
EZOHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko ekainaren hogeita bederatzian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ezohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Haritz Antoñanzas Urdangarin eta Maria Carolina Aguirre Mastrangelo.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Calleja dihardu.

Toki Entitateen Erregimen Juridiko, Antolaketa eta Funtzionamendu Arautegiak bere 38. artikuluan xedatutakoari jarraituz ondorengo puntuen azterketa, erabakitze eta jakinaren gainean gelditzea du helburutzat batzarraldi honek.

I.- ALKATE-ORDEEN IZENDAPEN ETA GOBERNU BATZORDEAREN OSAKETARI BURUZ ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren tokiko gobernu batzarraren partaide eta alkateordeei buruz emandako alkatezaren ebazpenaren berri ematen da.

Alkatezaren ebazpen horretan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onartzeari buruzkoak, bere 52.1. artikuluan ezarritakoa jarraiki, tokiko gobernu batzordeko partaide izendatu dira ondorengo zinegotziak: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Halaber eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onartzeari buruzkoak bere 46.1. artikuluan ezarritakoa jarraiki, tokiko gobernu batzarreko honako partaide hauek izendatu dira alkateorde:

- Lehen alkateorde Amagoia Naldaiz Mingo.
- Bigarren alkateorde Aitor Altuna Oiarbide.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

II.- UDAL TALDE POLITIKO ETA BOZERAMAILEAK.-

Alderdi ezberdinetatik jasotako komunikazioen arabera Lazkaoko Udalaren talde politiko eta bozeramaileak honako hauek dira:

- EAJ udal talde politikoa. Bozeramailea Amagoia Naldaiz Mingo.
- EH BILDU udal talde politikoa. Bozeramailea Joxemai Ormazabal Sukia.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- LAZKAOKO UDALAREN ARDURALDIEN ETA ORDAINSARIEN ARUBIDEA.-

Lazkaoko Udalaren arduraldien eta ordainsariei dagokienean, legeriak aurreikusitakoa betez eta EUDELeK gomendioei jarraiki, honako proposamena aurkezten da Osoko Bilkurara bere onarpenerako:

LEHENA.- Lazkaoko alkate-lehendakariaren arduraldiaren araubidea onartzea, ondokoaren arabera: Erabateko arduraldia, %100ekoa. Ordainsaria, kontzeptu guztiengatik: 67.039,12 € gordin urtean. Eraginkortasun-data: 2023ko ekainaren 17a.

BIGARRENA.- Udal gobernuaren zinegotzi delegatuaren arduraldiaren araubidea onartzea, ondokoaren arabera: Erabateko arduraldia, % 100ekoa. Ordainsaria, kontzeptu guztiengatik: 48.268,17 € gordin urtean. Eraginkortasun-data: 2023ko ekainaren 17a.

HIRUGARRENA.- Oposizioko talde politikoko zinegotzi bati %50-eko zatiko arduraldiko eskubidea onartzea, ondoko ordainsariekin kontzeptu guztiengatik: 24.134,08 € gordin urtean. Zatiko arduraldiaren eraginkortasun-data 2023ko ekainaren 17a izango da.

Laugarrena.- Behin-behineko pertsonal ebentualari dagokion lanpostu bat sortzea, honako ezaugarri eta ordainsariekin:

- Udal Gobernuaren idazkaria
- Klasifikazio taldea: C1
- Ordainsaria: 45.251,41 € gordin urtean
- Arduraldia: lanaldi osoa (%100)

BOSGARRENA.- Udal funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen soldatak eguneratzearekin batera eguneratuko dira ordainsari hauek.

SEIGARRENA.- Alkatcaren esku uztea oinarri horiek aplikatuz goi karguen liberazioaren eta konfiantzazko behin-behineko langilearen izendapen hasiera eta amaiera ebaztea.

ZAZPIGARRENA.- Lanerako Ezintasun Iragankorraren kasuan, Udal ordezkariak konpentsazio bat jasoko dute ordainsarien % 100 osatu arte, bai eta bizi-aseguruen, istripuen eta bestelako en aseguru polizak ere, Udal funtzionarioek eta lan-kontratuko langileek bezala.

Gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aldeko zazpi boto (EAJ), aurkako boto-rik gabe eta sei abstentzioz (EH Bildu) proposamena onartu egiten du.



LAZKAOKO
UDALA





IV.- TALDE POLITIKOEN ETA ZINEGOTZIEN EKONOMI ASIGNAZIOAK.-

Talde politiko eta zinegotzien ekonomi asignazioei dagokionean, bere onarpena-ko osoko bilkurara aurkezten den proposamena honako hau da:

Zinegotziei bilkuretara bertaratzeagatik, bilkura bakoitzeko:

<u>Bilkura mota</u>	<u>Bilkura bakoitzeko</u>
Osoko Bilkura	140,00€
Tokiko Gobernu Batzarra	115,00€
Batzorde informatzailea:	
- Batzordeko presidentea	170,00€
- Presidentea ez den zinegotzia	60,00€
- Lazkao Lantzenen administrazio kontseiluaren bilkurak	115,00€
URTEAN GEHIENENKO MUGAK	
Gobernu taldeko zinegotzi bakoitzeko: 5.698,33€	
Oposizioko zinegotzi bakoitzeko: 4.022,35€	

Alderdi politikoei ordaintzeko kopuruak, hilean:

<u>Alderdiko finkoa</u>	<u>Udal Taldeko zinegotzi bakoitzeko</u>
420,00€	170,00€

Talde politikoek eta zinegotzietan ordainsariak udaleko funtzionarioen soldatak eguneratzearekin batera eguneratuko dira.

Osoko Bilkurak, aldeko zazpi boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta sei abstentzioz (EH Bildu) proposamena onartu egiten du.

V.- OSOKO BILKURAREN ALDIZKOTASUNA ETA EGITE EGUNA ETA ORDUA.-

Osoko Bilkuren aldizkakotasunari eta hauek egiteko egun eta orduari buruz, Osoko Bilkurak, aho batez, ohiko batzaraldiak hilean behin egitea erabakitzen du. Bilkura hauek hileko azken ostegunean egingo dira, arratsaldeko/iluntzeko sei eta erdietan.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu), ez-ohiko Osoko Bilkurretan ere galdera eta erreguen puntua gehitzeko eskaera egin du. Idazkariak dio egiaztatuko duela egin daitekeen.

VI.- BATZORDE INFORMATZAILEEN SORRERA ETA BATZORDE HAUETAKO PRESIDENTE-EN IZENDAPENAREN PROPOSAMENAK.-

Batzorde Informatzaileen sorrerari buruz honako proposamena egiten da:

- Ogasuna, Pertsonala, Kontratazioa eta Kontu Berezien Batzordea.
- Ekonomia sustapena.
- Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna eta Adineko pertsonak.
- Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuak.
- Landa eremua.
- Kultura eta Euskera.
- Kirola, Gazteria eta Hezkuntza.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio beraiek ezezko botoa emango dutela, ez batzordeekin desadostasunean daudelako, hurrengo puntuarekin ados ez daudelako baizik. Hauteskundeen emaitza hain berdindua izanik, iruditzen zaie ardurak ere banatu beharko liratekeela. Hori proposatzen ez denez, ezezko botoa emango dutela dio.

Alkateak dio ez dutela programa bat adostuta, batzorde buruak landu behar duela. Adostu egin behar dela aurrez, eta egoera hori ematen ez denez, hori dela arrazoia batzorde horien lehendakaritza Udal gobernuaren esku izatearena.

Hau guztia horrela, gaia bozketan jarri eta osoko bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako 6 botoz (EH Bildu), proposamena onartu egiten du.

Alkateak esaten du batzorde hauetako presidenteei dagokionez eta legediak dioena jarraitzeko, Alkatea bera izango dela Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuak Batzordeko presidentea eta gainantzeko batzordeetako presidenteak haiek izango direla:

- Ogasuna, Pertsonala, Kontratazioa eta Kontu Berezien Batzordea: Eneritz Miranda Muxika
- Ekonomia sustapena: Josetxo Sese Eztala.
- Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna eta Adineko pertsonak: Unbe Echaniz Perez.
- Landa eremua: Aitor Altuna Oiarbide.
- Kultura eta Euskera: Amagoia Naldaiz Mingo.
- Kirola, Gazteria eta Hezkuntza: Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

VII.- UDALAK PARTE DUEN ERAKUNDEETAN UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA.-

Udalak parte hartzen duen organo kolegiatuetan ordezkariak izendatzeari buruz, honako proposamen hau egiten da:

- GOIEKIn: Kepa Zubiarrain Erauskin; ordezkoa Josetxo Sese Eztala
- Goierri Beheko Industrialdea, S.A.n: Kepa Zubiarrain Erauskin; ordezkoa Amagoia Naldaiz Mingo
- Goierriko Herrien Ekintza: Kepa Zubiarrain Erauskin; ordezkoa Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana



- Ikaslan Fundazioan: Kepa Zubiarrain Erauskin; ordezkoa Amagoia Naldaiz Mingo
- EUDELen: Amagoia Naldaiz Mingo; ordezkoa Unbe Echaniz Perez.
- Sasieta Mankomunitatean: Kepa Zubiarrain Erauskin, Josetxo Sese Eztala; ordezkoak Eneritz Miranda Muxika eta Amagoia Naldaiz Mingo.
- GOIMENen: Aitor Altuna Oiarbide; ordezkoa Unbe Echaniz Perez.
- Enirio-Aralar Mankomunitatean: Aitor Altuna Oiarbide; ordezkoa Unbe Echaniz Perez.
- Tolosako Hiltegiaren Mankomunitatean: Aitor Altuna Oiarbide eta Amagoia Naldaiz Mingo; ordezkoak Unbe Echaniz Perez.
- Gipuzkoako Ur Kontsoltzioan: Josetxo Sese Eztala; ordezkoa Amagoia Naldaiz Mingo.
- San Benito Ikastolan: Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana; ordezkoa Amagoia Naldaiz Mingo.
- Beneditarren Fundazioan: Kepa Zubiarrain Erauskin, Amagoia Naldaiz Mingo; ordezkoa Aitor Altuna Oyarbide.
- Lazkao Lantzen, S.A. Udal Elkartearen:
EAJtik Kepa Zubiarrain Erauskin, Josetxo Sese Eztala eta Eneritz Miranda Muxika.
EH BILDUtik Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako 6 botoz (EH Bildu) proposamena onartu egiten du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zazpiak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA